

Lanartea

Bertsolaritza kultur adierazpenaren irakurketa

2019. urteko maiatzaren 25ean bildu dira euskaraz ari diren kultugintzako langile autonomoak. Lanartea ekimenaren talde eragileak kultur adierazpen bakoitzeko ordezkariak irakurketa egiteko eskatu diete. Dokumentu hau bertsogintzaren inguruko irakurketa da.

Plaza


Xenpelar Dokumentazio Zentroan bildutako datuen arabera, Euskal Herrian bertsogintzaren bueltako 1665 saio egin ziren 2018. urtean. Horietatik 1215 dira bertsogintza ardatz dutenak, jaialdiak, lagunartekoak, plaza librekoak eta txapelketak edo sariketak. Beste 400dik gora ekitaldi bereziak, esperimentalak, hitzaldiak edo didaktikoak antolatu ziren. Azken urteotan mantendu egin dira kopuruak, ez dago goranzko edo beheranzko joerarik.

Kontratazio moduak

Azken urteotan bertsolaritza astindu du kontratazioak burutzerako orduan gertatu den zorrotasunak. Orohar, bertsogintzan hiru modu daude kontratazioak burutzeko:

- **Lanku bertso Zerbitzuak S.L. enpresaren bidez.** 2003. urtean Bertsozale Elkarteak bertsolarien kontratazioa erraztu eta ekitaldien azpiegitura indartzeko sortutako kultur enpresa da Lanku. Bertsoa oinarri hartuta, edozein kultur ekitaldi sortzeko eta antolatzeko giza zein baliabide materialak kudeatzen dituen enpresa da Lanku.

Lankuren bidez 626 saio kontratatu ziren 2017. Urtean: 347 bertso saio eta 279 emanaldi berezi.



Bertsolari bat Lankuren bidez doanean gizarte segurantza eta lan sailaren betebeharrak eginda kontratatzen da. Bertsolariak hiru mailatan antolatuta daude eta bertsolari bakoitzak erabakitzen du zein mailatan egon. Kasu guztietan antolatzaileak aukeratzen ditu bertsolariak.

- **Bertsolari autonomoen bidez.** Azken hamarkadan 29 bertsolarik hartu dute autonomo izateko erabakia. Ia denek bi lan edo gehiago uztartzen dituzte, alegia, bertsolaritzan

aritzeaz gain diru sarrerak osatzen dizkien beste jarduera bat dute, edo bertsolaritza da osagarria kasu gehienetan. Hauexek dira epigrafe ohikoenak:

- Itzultzaile eta interprete.
- Abeslari.
- Sormen artistikoa eta literarioa.
- Musika jarduerak.
- Besteak eta honen barruan bertsolari eta sormen erredaktore.

Plazan gehien dabilzan bertsolariak autonomoak dira, eta bertsolari autonomoek antolatzaileei edo Lanku Bertso Zerbitzuak S.L. enpresari fakturatzen diote.

Halere beste egoera hauekin aurkitzen gara

- Zenbaitetan bertsolariei kosta egiten zaie zenbatekoa aurrez jakitea. Alegia, zer kobratuko duen jakin gabe joaten da bertsolaria saiora, galdetu ez duelako eta antolatzaileak esan ez diolako.
- Bertsolariaren katxea (220€ eskatzen dute antolatzailearekiko tratua zuzena denean) merketzeko eskatzen da kasu askotan.
- Faktura gabeko kasuetan zuriketa sinatzea eskatzen dute antolatzaile askok eta hor sortzen dira arazoak.

Kezkak kontratazio moduetan

Kontratazioari begira ez dugu arazo handirik izan Lanku Bertso Zerbitzuak S.L.-ren eta autonomoen bidetik. Inspekzio mordoxka izan dira azken urtetan eta bakanak izan dira arazoak. Halere, badira kezkatzen gaituzten zenbait kontu:

- **Bertsolari jubilatuen kasua.** Jubilatuta dauden bertsolariek gestio luzea egin behar dute saio batean kantatzeko. Gizarte Segurantzara joan eta jubilazioan baja eman, saioa burutu eta bigarren buelta bat behar da ostera alta emateko. Gainera, bertsolariak jasotzen duen ordaina adinakoa (edo gehiago) da Gizarte Segurantzak jubilaziotik kentzen diona
- Azkenaldian bada zalantza bat, **Gizarte Segurantzak ikuskariaren arabera ezberdin irakurtzen duena:** antolatzailea eta artistaren artean kontratu bat behar duela diote zenbait ikuskarik, nahiz eta artista autonomia izan. Horren arabera, saio berean ezingo genituzke bertsolari autonomoak eta Lankutik alta emandakoak uztartu.

Momentuz bereizi egiten ditugu antolatzaile lana eta bitartekari lana egiten dugun saioak: txapelketan antolatzaile Bertsozale Elkarte da eta kontratua egiten die bertsolari guztiei (autonomoak barne); plazako saioetan antolatzailea dena delako izanik Lanku bitartekaria da eta enpresak egiten du kontratua antolatzailearekin, autonomoek zerbitzuak fakturatzen diote Lankuri eta besteei alta ematen die Gizarte Segurantzari. Baina zenbait ikuskariren irakurketa moduak aurrera egiten badu antolatzaileen eta zuzenean kontratatzen dituen autonomoen artean ere kontratua egon behar du.

Bertsozale Elkarteen paperaren baitan aldaketa

Hona hemen Bertsozale Elkartean pilotutako gaiaren bueltako zenbait sententziak:

Sortzaileen egoera laborala hobetzea lehentasunen artean ezarri da azken gogoeta estrategikoan. Pixkanaka bide honetan egin beharreko pausoak markatu eta ekingo zaio. Gaur arte Bertsozale Elkarreak garbi izan du ez zuela esku hartu behar plazako baldintzetan.

Bertsolaritza ez da kultura, euskara da. Kulturak programatzen duenean garbi esaten digute, eta euskarako atea irekitzen da gehienetan. Euskarazko kultur genero gisa aitortzeko

zailtasunak nabari ditugu eta elkarteko kideek ere gehiago ikusten dute euren burua "euskaran" zein "aisialdian". Azken gogoeta estrategikoan egoera berdintzeko nahia erakutsi da.

Bestalde, zenbaitetan euskalgintzatik oso gertuko eragileengandik jaso da kultur sortzaileen lana ordaintzeko jarrera motzena.

Honetan, ez du batere laguntzen jardun inprobisatua izateak.

Egile eskubideen gestiorako zerbitzua jarri du martxan Bertsozale Elkartek Lanku Bertso Zerbitzuak S.L. enpresaren bitartez. Bestalde, Bertsozale Elkartea EKKIko (Euskal kulturgileen Kidegoko) sortzailea da eta zuzendaritza taldean dago bere sorreratik.

Amaitzeko, euskal kulturgintzan gai hau eta bestelakoak lantzeko interlokuzio falta sumatu izan dugu.